



IES Uribe-Kosta BHI

MUSIKA

2018-19 Ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES Uribekostabhi	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4. maila
arloan/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	MUSIKA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	TIC, HIZKUNTZA ETA LITERATURA MINTEGIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA,		
diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia Arterako kompetentzia Teknologiarako kompetentzia Matematikarako kompetentzia Kompetentzia sozial eta zibikoa Zientziarako kompetentzia Kompetentzia motorra		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	ALMUDENA MARTINEZ	ikasturtea: <i>curso:</i>	2018/2019

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Norbera izaten ikasteko kompetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1. Musikak norberaren ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko dituen aukera ugariez jabetzea, eta hainbat motatako musika-adierazpenak errespetatzea eta balioestea, artea eta kultura ezagutzeko eta gozatzeko aukera ematen duten aldetik.</p> <p>2. Musikaren eta beste arte-hizkuntza, ezaguera, ikus-entzunezko baliabide eta hedabide batzuen arteko loturak zein diren jakitea, eta horiek guztiak artelan konplexuak ekoizteko beharrezkoak diren sormen-, espresio- eta komunikazio bidetzat erabiltzea.</p>	<p>1. Ikuspegi kritikoaz ematea musikak hedabide eta ikuskizunetan duen presentziari buruzko iritzia, eta horretan, hainbat argudio mota emateko gai izatea.</p> <p>Obren balioa bereizten du, topikoetatik urrunduz. Ikus-entzunezko jardueretan erabiltzen den musikak duen egitekoari erreparatzen dio. Euskal kultura-inguruko musika-jardueretik interesa ageri du. Musika-taldeek musika-munduan duten eragina aztertzen du. Informazio-iturri bat baino gehiagotara jotzen du kritikak osatzeko. Musika-emanaldietara joatean, haien gaineko</p>

3. Estilo, genero eta hainbat joeratako musika-lanetan erabiltzen diren elementu tekniko eta espresiboak aztertzea eta identifikatzea, eta hori guztia ezaguera-bide eta gozamen-iturritzat hartzea, musika ondo ulertzeko, erreferente estetiko berriak eskuratzeko eta mota askotako errealitate eta ekoizpen artistikoen bidez nork bere burua aberasteko.

4. Musikaren oinarrizko teknikak, baliabideak eta konbentzioak ezagutzea, musikalanak autonomiaz eta trebetasunez aztertzea, interpretatzea eta ekoiztea, eta horretan, norberaren trebetasun intelektualez, ekimenaz eta irudimenaz baliatzea, sormen eta espresibide indibidual nahiz kolektiboak lantzeko eta aberasteko.

5. Norberak zenbait musika-lan sortzea, horretan emandako denboran gozatzea eta musika pertsona gisa hazteko, emozio, sentimendu, bizipen eta ideien berri emateko eta komunikazio-gaitasuna, pentsamendu kritikoa eta autokonfiantza garatzeko bidetzat hartzea.

6. Zenbait testuingurutan egitekoak diren musika-proiektu musikaletan parte hartzea, eta talde barruan zenbait funtzio betetzea, horrela plangintzak egitearekin, koordinazioarekin eta talde-lana ebaluatzearekin lotutako trebetasunak lantzeko.

7. Musikaren eta soinuaren erabilerak eta funtzioak kritikoki aztertzea, eta horiek norberaren nahiz besteen esperientzietan identifikatzea, musikak gure inguruko gizartean eta kulturaren zer-nolako funtzioa duen ulertzeko.

iritzia ematen du. Hitz eta kontzeptu musikalak erabiltzen ditu iritzietan. Bere iritzia taldean azaltzen duenean, elkarrizketarako jarrera izaten du.

2. Gai izatea musika-lan bat entzun eta, alde aurretik emandako irizpideak aintzat hartuta, entzun duen horretan ageri diren ideia nagusiak identifikatzeko. Adi entzuten ditu soinu-mezuak, haiek entzuteko ezarri diren jarraibideak beteta. Soinu-mezuaren funtsezko alderdiei erreparatzen die, topikoak alde batera utzita. Zer obra mota entzuten duen bereizten du. Entzundako obren azalpen-eskemak egiten ditu. Entzundako obren gaineko iritzia ematen du, argumentu koherenteak erabiliz. Besteren iritzia entzutean, elkarrizketarako jarrera irekia izaten du.

3. Ikus-entzunezko baliabideak eta teknologia berriak erabiltzea eta espresibide horiekiko interesa izatea. Informazioa biltzeko, autonomiaz erabiltzen ditu ikus-entzunezko baliabideak. Teknologiak ematen dituen aukerak baliatzen ditu bere musika-lanak aberasteko. Teknologiaz baliatuta, komunikazio musikalerako modu berriak arakatzen ditu. Irizpide estetikoak erabiltzen du teknologia berriekin egiten dituen lan musikaletan.

4. Irudi-sekuentzia bati soinua eranstea, eta horretan, zenbait baliabide informatiko erabiltzea. Musika askotarikoak hautatzen ditu irudiei laguntzeko. Material eta bitarteko errealei erreparatzen die lan-plangintzak egiteko. Ondo koordinatuta antolatzen ditu material soinuduna eta bisuala. Arreta jartzen du lanen akaberan. irtenbide originalak ematen dizkie problemei. Egokitasunez azaltzen du egindako lana.

5. Zenbait iturri dokumental oinarri hartuta, proposatzen zaizkion musika-lanak aztertzeko eta azaltzeko gai izatea.

Musika-obra ulertzeko behar den informazioa hautatzen du. Obraren oinarrizko ideiak antolatzen ditu. Musika-obraren gaineko komentarioak egiten ditu. Beste arte-adierazpen batzuekin lotzen du

<p>8. Musika herri eta kulturen ondare eta identitatearen parte dela aintzat hartzea, eta, ondare oparo hori babestea eta sorberritzea helburu hartuta, eta elkartrukeak dakarren aberastasunaz jabetuta, kulturen arteko elkarrizketak eta herrien konpartitzen dituzten esperientzia artistikoek egindako ekarpen ugarietikiko interesa izatea.</p>	<p>musika-obra. Ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen ditu aurkezpenetan. Lexiko egokia eta kontzeptu musikalak erabiltzen ditu argudioak osatzean. Informazioaren jatorriko iturriak aipatzen ditu. Aurkeztutako obra entzuten du eta haren gaineko elkarrizketetan parte hartzen du.</p> <p>6. Musika-lanak ikuspegi kritikoz entzutea eta haien egitura eta edukia aztertzea. Loturak egiten ditu entzuten duenaren eta entzunaldiaren aurretik eman zaizkion entzute-jarraibideen artean. Entzunaldian azaldu diren ideia musikalak identifikatzen ditu. Entzundako obrak dituen soinu-blokeak konparatzen ditu. Obrari nortasuna ematen dioten erritmo-jokoak hautematen ditu. Obraren aldaketa harmonikoak aztertzen ditu. Entzundako obraren antolamendu formalean ageri diren errepikapenak, bariazioak, imitazioak, oihartzunak eta kontrasteak zehazten ditu. Obraren oinarrizko konposizio-elementuak ondorioztatzen ditu eta entzunaldiaren osteko elkarrizketetan azaltzen.</p> <p>7. Musika-lan baten zentzua interpretatzea eta haren alderdi estetiko eta teknikoei buruzko iritzia emateko gai izatea. Obraren antolamendua aztertzen du. Haren oinarrizko ideiak identifikatzen ditu. Tonalitatearen, tempoaren eta karakterren aldaketak igartzen ditu. Musikaren erritmoan mugitzen du gorputza. Irizpide estetikoak baliatzen ditu interpretazioaren kalitatea zehazteko. Musikan oinarritzen du bere iritzia eta ez topikoetan.</p> <p>8. Entzuketa-jardueretan Soinu-ekoizpenaren iturria identifikatzeko gai izatea, eta horretan, bere mailarekin bat datorren soinu- eta tinbre-mapa erabiltzea. Obraren soinu-mapa egiten du, entzundako tinbre-ezaugarriei erreparatuta. Ahots kantatuaren tesiturak bereizten ditu. Musika-tresnen familietako musika-tresnak bereizten ditu. Soinuaren iturria identifikatzen du. Tinbre-aldaketak ikertzen ditu objektu soinudunetan, aurretik ikasitakoak erabilia.</p> <p>9. Musika-lan koherente eta aberatsak</p>
---	---

maila aintzat hartuta. Musika-hizkuntzari buruz duen jakintza antolatzen du musika sortzeko. Originaltasuna lantzen du obretan. Ideia musikalen plangintza koherentea eta orekatua egiten du. Bere obrak aztertzen ditu eta iritziak eskatzen ditu kontrasteak egiteko.

10. Musika-lanak bakarka nahiz taldean interpretatzeko gai izatea, eta unean-unean musikalan horren interpretazioaren ezaugarrietara egokitzen jakitea.

Musika-hizkuntzaren jakintzak batzen ditu interpretazioak egiteko. Interpretazioaren giltzarriak identifikatzen ditu eta horietara egokitzen da. Soinuak entzun eta egiteko ekintzak uztartzen ditu. Taldeko soinuarekiko harmonian erabiltzen ditu ahotsa eta musika-tresnak. Lan-dinamika zuzenari eusten laguntzen du. Ondo betetzen ditu batutaren jarraibideak.

11. Musika-jardueretan parte hartzea, eta hori gozamen-iturritzat eta bizikidetzat sustatzeko bidetzat hartzea. Harmoniaz parte hartzen du musikaren interpretazioan. Interpretazioan sor daitezkeen arazoak konpontzeko interesa adierazten du. Obrak prestatzen ditu, onena emateko hura interpretatzean. Talde-dinamikari eusten dio. Apaltasunez laguntzen die gainerako pertsoneri, elkartasunez. Jarduerak harmoniaz egiten laguntzen du.

12. Ikastetxean musika-jarduerak egiteko beharrezkoak diren lanetan parte hartzea, eta horretan, gogoz laguntzea jarduerok planifikatzen, entseguak egiten,

musika-lanak interpretatzen eta ikuskizuna zabaltzeko lanak antolatzen.

Musika-jarduerak proposatzen ditu ikastetxean. Ordenan azaltzen ditu lan-plangintzak. Jarduerekin lortu nahi diren helburuei buruzko ideiak ematen ditu. Jardueren alderdi integratzaileak zaintzen ditu. Entseguetara joaten da. Kalitatezko jarduerak egiteko interesa ageri du. Azken emaitzaren erantzule sentitzen da. Obrak zabaltzen laguntzen du.

13. Eguneroko bizitzan eta musikaren

	<p>erabilera ugariak identifikatzeko gai izatea, eta horretan, soinu-ingurunearen aldeko jarrera aktibo eta kritikoa izatea. Badaki zer erabilera dituzten material soinudunek. Soinu edo zarata handiegien ondorioak aztertzen ditu. Inguruan soinu-giro atseginak sortzen laguntzen du. Isiltasuna hobesten du kontzentrazio-giroak sortzeko. Soinuaren ezaugarriak aztertzen ditu. Kalitate akustikoa probatzen du.</p> <p>14. Interpretazio-material askotarikoa hautatzeko gai izatea, eta beste errealitate kultural batzuk ezagutzeko erabiltzea material hori. Interpretatuko den partitura prestatzen du, behar diren jarraibideak beteta. Isilik dirau interpretazioaren aurretik, kontzentratzeko. Interpretazio-teknika zuzena erabiltzen du. Espresio-nabardurak erantzen dizkio interpretazioari.</p>
--	---

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en periodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

<p>1go. EBALUAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">● MUSIKA ETA TELEBISTA PROIEKTUA. Proiektua: Bilbo, musikaz blai.● Erabakiak hartzen (Irteerak antolatu)● 2 Musikari ezagunak egungo musikan● Entzunaldiak● Arreta eta memoria● Praktika instrumentala● Abestiak sortu <p>2. EBALUAZIOA:</p> <ul style="list-style-type: none">● KONTZERTUA ETA KRITIKA MUSIKALA PROIEKTUA.● Gabonetako Kontzertua haur hezkuntzan● ALDIZKARI MUSIKAL DIGITALA SORTU.● 2 Musikari ezagunak egungo musikan● Entzunaldiak● Arreta eta memoria● Praktika instrumentala● Abestiak sortu <p>3. EBALUAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none">● MUSIKA IRAGARKIETAN PROIEKTUA.● Proiektuaren planifikazioa● Iragarkia sortzen● Arreta eta memoria● 2 Musikari ezagunak egungo musikan● Entzunaldiak● Arreta eta memoria● Praktika instrumentala

DENBORALIZAZIOA: Ikasturtea hiru ebaluazioetan banatuko da eta bakoitzean 4 bloke nagusiak landuko dira: Eduki komunak (Taldean ikasteko lanak eta norberaren ezagutza), Musika entzutea eta ulertzea (hizkuntza), Musika interpretatzea eta sortzea (banaka, taldeka) eta Testuinguru eta erreferente musikalak(kultura ezberdinen musika-ondarea)

Hurrengo printzipio metodologikoetan oinarrituko gara: Konstruktibismoan, Irakaskuntza esanguratsua, Ikasteko autonomia eta ikasten ikasteko printzipioan, Aniztasun eta indibidualizazio printzipioetan eta Sozializazio printzipioan.

Horretarako **estrategia ezberdinak erabiliko ditugu:** Erabiliko den metodologia baterazlea, kooperatiboa eta aktiboa izango da; ikaslea partaide delarik, horretarako lanetan ikertu, aztertu, erreflexionatu eta iritziak eman behar izango dituzte / Ikasten denaren ulermena potentziatuko da, horrela gertatzen baita irakaskuntza esanguratsua. / Beraien partaidetza taldean inportantea izango da. / Landuko diren edukiak praktikan oinarrituko dira, / Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliko dira autoikaskuntza, komunikazio, ezagutza, laguntza eta gehiago jakiteko bide moduan. / Ikaslearen aniztasuna kontutan hartuko da.

Musika gelan erabiliko diren estrategiak: Praktikan oinarrituko gara eta musika-taldeen bidez hainbat proiektuetan jardutea du helburu. Hauetan, 1. Zenbait musika-proposamen entzun eta aztertuko dituzte, 2. Musika jotzen eta sortzen arituko dira, 3. XX. mendeko musika aztertu eta eztabaidatu egingo dute, 4. Teknologi berrien bitartez zabalduko dituzte beraien lanak eta proiektuak. Honetarako zenbait informatika baliabide eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliko dira.

BALIABIDEAK

-Baliabide analogikoak

Testu liburua ez da erabiltzen. Irakasleak apunteak eta fotokopiak prestatuko ditu. Horretarako argitaletxe desberdinen liburuetan oinarrituko da, baita internetetik pilatutako informazioan ere. Partiturak, artikulak, denbora lerroak,...

- Baliabide digitalak

Institutuko IKT baliabideak: netbookak, arbela digitala, argazki eta bideo kamara, CDak,...

Honetan erabiliko diren baliabideak Google Appsek eskeinitako tresnak: e-maila, musika sitea, drive, presentazioak (slideshare, ppt), calendar, glogsterra, classrooma, mugikorraren erabilpena ... izango dira.

PROIEKTUAK

Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.

Irakurketa Plana: Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarritzko edukia izan dadin.

HTB: Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

Hezkidetzeta (Aniztasuna): Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorrean gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.

Bizikasi: "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

Agenda 21: Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
	<p>Alde batetik, <u>irizpide epezifikoak</u>:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Musika hizkuntza, 2. Entzumena, 3. Ikerketa lanak eta 4. Musika praktika.
<p>Etengabeko prozesu bat da. Kontuan harturik gure ikaslea entzule eta ekoizle izango delarik:</p> <p>Ikaslearen koadernoak, ariketak eta lanak, zuzenketak, laburpenak, ahozko eta idatzizko adierazmena aurkezpenetan, interpretazioa (kantagintza, dantza eta instrumentuak) eta froga idatziak izango dira kalifikatzeko erabiliko ditugun tresnak. Hau guztia aurrera eramateko saio bakoitzean behaketan oinarrituko gara.</p>	<p>Bestetik, <u>irizpide orokorrak</u>:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Jarrerak (gelan eta lanetan), 2. Adierazmen idatzia eta ahozko adierazmena, eta 3. Parte hartzea. <p>Beraz, kontutan hartuko ditugun kalifikazio irizpideak hauexek izango dira:</p> <p>Datan (%10) a I.E. (1,3) eta I.O. (1,2). Paperan zein digitalan.</p> <p>Jarrerak: (%30) a : %10 gelan, %10 I.E (3,4)+I.O. (2) lanetan , %10 I.O. (3) parte hartzen. Aktiboa eta parte-hartzailea izan behar baita.</p> <p>Praktikoa: (%60) a I.E (1,2,3) eta I.O. (2). Ikasgaiaren oinarria baita.</p> <p>Ebaluazio bakoitzaren amaieran proposatu eta landutako lanak eta proiektuak burututa egon behar dira.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</p>	

Ebaluaketa bat gainditzeko 5 atera beharko da. Eguneroko lana eta parte-hartzea baloratzen da.

- Ikasgaien berreskurapena: atalen bat ondo finkatu gabe gelditu bada, jarduera batzuen bidez sendotuko da.
- Ebaluazio berreskurapena: Hurrengo ebaluazioa gainditzen badu gaindituko du, jarraia baita. Hala ere, 1. eta 2. ebaluaketak gainditu gabe badaude, derrigorrezkoa izango da 3. ebaluaketan, ikasturtean zehar egin ez diren ariketak aurkeztea. Froga praktikoa bat egingo da (konpetentzia digitala) non azaldu behar duten ikasturtean zehar landu dutena. Zein baliabideak erabili ditugun azalduz, zer nolako erabakiak hartu diren lanak aurrera eramateko, informazioa eta honen antolamendua nolako izan den, zein zailtasunak izan dituzten,...
- Ikasturte osoaren berreskurapena: Ekainean ezohiko ebaluazioan azterketa baten bidez egingo da. Bloke bakoitzaren ariketa/proiektu bat aurkeztu behar izango dute: 1. Landutako partitura bat interpretatu 2. Entzunaldi baten komentarioa egin eta 3. Aurkezpen bat (PP) egitea landutako gai baten inguruan.

OHARRAK / **OBSERVACIONES**

--

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**

IES Uribekosta BHI Bigarren Hezkuntza Institutua

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA
LINGÜÍSTICA Y CULTURA**

Instituto de Educación Secundaria IES Uribekosta BHI

